



Arartekoaren ebazpena 2009ko otsailaren 17koa. Horren bidez Iruña Okako Udalari gomendatzen zaio ibilgailua teknikoki egokitu ez duten pertsonen TMIZen ezgaitasunagatiko salbuespena ezeztatzeko eman dituen ebazpenak baliogabetzea.

Aurrekariak

1. (...) jaunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Iruña Okako udalaren jarduerarekin ados ez zegoelako. Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (aurrerantzean TMIZ) ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatzea ezeztatu zion, nahiz eta agiri bidez frogatutako % 44ko ezgaitasuna duen eta berak bakarrik erabiltzen duen ibilgailuaren titularra den.

Emandako ebazpen ezeselearen oinarri gisa udalak adierazi du ez dela betetzen zerga hori arautzen duen Udal Ordenantzaren 4.2 artikulua (horren arabera, eskatzaileak ibilgailua teknikoki egokituta dagoela ziurtatu behar du). Horren ildotik, honakoa nabarmentzen du: “(...) jaunaren ezintasunak ez dakarkio inolako kostu gehigarririk ibilgailua erosterakoan, ez baitio aparteko egokitzapenik egin behar.”

2. Udalaren ebazpena lehenengo aldiz aztertu ondoren, pentsatu genuen deskribatutako planteamendua zaharkituta zegoela. Izan ere, ez zen bat etortzen TMIZen egungo legezkotasunarekin, baizik eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 51/2002 erreforma Legea onartu aurretik zegoenarekin.

Ordura arte, hizpide dugun ezintasunagatiko salbuespena jasotzeko ibilgailuaren zerga-potentzia eta ezintasuna zuen pertsonak gidatu ahal izateko egin behar zitzaizkion egokitzapenak hartzen ziren kontuan. Alabaina, 51/2002 Legeak, Herriaren Defendatzaileak egindako gomendioei jaramon eginez, salbuespenaren aplikazio eremua hobetu eta nabarmen zabaldu zuen eta, hala, hori Zenbait Garraiobideren gaineko Zergakoarekin parekatu zuen.

Aldaketa hori 12/2003 Foru Arauaren bidez islatzen da Arabako Lurralde Historikoaren 44/1989 Foru Arauaren 2. artikuluan. Horren arabera, ezgaituen ibilgailuei aplikatzen zaien salbuespenak ibilgailuaren zerga-potentziari eta ezgaituak gidatu ahal izateko egin beharreko egokitzapen zehatzei lotuta egoteari utzi zion eta, hala, ezgaituaren izenean matrikulatuta dagoen eta berak bakarrik erabiltzeko den edozein ibilgailuri aplikatzeko modukoa bihurtu zen, ibilgailua berak edo beste pertsona batek gidatzen ote zuen aintzat hartu gabe.





3. Egoera bitxi honen jatorria zehazteko eta konponbide egokia emateko, eragindako udalera jo dugu eta TMIZ Foru Arau erregulatzaileria eta udalerrri horretako ordenantzaren artean antzemandako kontraesana azaldu diogu. Gainera udalbatza horri eskatu diogu bere jarduerak eta arauzko xedapenak berraztertzeke, indarrean dagoen legezkotasuna berrezartze aldera.

Hasieran udalak tinko eutsi zion bere ordenantzako edukari eta, beraz, baita azaldutako kasu zehatzaren aurrean egindako jarduerari ere. Horrela, udalak bidali zigun txostenean Arabako Foru Aldundia ordenantza hori idatzi izanaren benetako egiletzat aurkeztu zuen. Izan ere, aipatzen zen "testu eredua" aldundiak proposatutakoa eta udalak onartutakoa zen.

Gauzak horrela, berehala jo genuen Arabako Foru Aldundira; kontu honi dagokionez zeukan jarrera defendatzeko aldundiari berari aukera ematea beharrezkotzat jo baikenuen.

Jaso genuen erantzunean argi geratu zen foru administrazioa ez zetorrela batere bat udaleko ordenantzak egokitzeko prozesuan aldundiak izan zuen parte hartzeari buruz Iruña Okako Udalak egin zuen interpretazioarekin. Alde horretatik, aldundiak bere txostenean berariaz ezeztatu zuen egokitzapen baldintza zerga horri aplikatu zitzaiokeenik eta adierazi zuen Iruña Okako Udalak, proposatutako testua interpretaretzakoan, akatsa izan zuela. Era berean, aipatutako udalari interpretazio akats horren berri emateko konpromisoa hartu zuen.

4. Gaizkiulertua argitu ondoren, udalak 2009 urterako bere ordenantzaren idazketa aldatu du eta ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatzerakoan ibilgailua egokitzeko baldintza ezabatu du.

Hala ere, ordenantza okerra indarrean egon zen urteei dagokienez (2005, 2006, 2007 eta 2008) udalbatzak honakoa adierazi du:

"Independientemente de las consideraciones que a este respecto ha señalado la Diputación Foral de Álava en informe solicitado por Uds., dicha Ordenanza Municipal estaba plenamente vigente puesto que en ningún momento fue objeto de recurso ni por parte de particulares ni de organismo alguno".

Erantzun hori ikusita, gure esku-hartzeari amaiera ematea erabaki dugu kontu honi dagokionez; hala, gomendioa barneratzen duen ebazpen hau eman dugu, honako gogoeta hauetan oinarrituta:





Gogoetak

1. Arabako Lurralde Historikoan Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauko 7. artikulua honakoa ezartzen du:

“7. artikulua

1. Arabako Lurralde Historikoko udalen eginkizunak izango dira, foru arau honek ezarritako esparruan, euren zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea. Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraituz egingo dituzte lan horiek. Betiere, udal zergei buruzko foru arauetan eta horiek garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen diren berezitasunei loturik jardungo dute.
2. Arabako Lurralde Historikoko udalek, zerga-ordenantzen bitartez, aurreko atalean aipatutako araudia euren antolaketarako eta funtzionamendurako barne araudira moldatu ahal izango dute, baina moldaketa horrek ezin izango dio aurka egin araudiaren eduki materialari.” (guk azpimarratu dugu).

Hortaz, ordenantza fiskalek tokiko zergen alderdi formalak arautzeko eskumenak dituztenaren inguruko zalantzarik ez dago. Baina, ez dute salbuespenaren irismena modulatzeko gaitasunik, hori foru arauari dagokion alderdi substantiboa baita.

Udalaren eskumena, ezgaitasunen bat duen pertsonari zergaren ordainketaren salbuespena emateko, ez da ahal diskrezionala. Ordea, erabat arautua dagoena eta, beraz, udalak bakarrik du foru arauan ezarritako baldintzak bete ote diren edo ez egiaztatzeke ahalmena.

Salbuespenak zergaren funtsezko elementua eratzen du. Horrek esan nahi du bere araudia foru arauko erreserbaren printzipioaren menpean kokatuta dagoela, alegia, inolaz ere, ezin dela ordenantza bidetik definitu.

2. Esku artean dugun zergari dagokionez, egiaztatu dugu horretarako araudiak, Araua eta Ordenantzaren artean alderdi substantzial eta formalak banatzeari dagokionez, Toki Ogasunen Foru Arauak duen formula bera duela.

Zehazki, 44/1989 Foru Arauko 2. artikulua honakoa xedatzen du:

“Zergatik salbuetsita egongo dira:

(...)

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak.





Halaber, zergatik salbuetsita egongo dira elbarrien izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, ezinduek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Aurreko paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Paragrafo honetan xedatutakoaren ondorioetarako, elbarritzat hartuko dira legez % 33ko elbarritasuna edo elbarritasun handiagoa duten pertsonak.”

Salbuespen hori aplikatzeko prozedurari dagokionez, 2. artikuluko 2. atalak honakoa agintzen du:

“Artikulu honetako 1. ataleko e) eta g) letretan aipatutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango da.

Aurreko 1. ataleko e) letrako bigarren paragrafoan ezarritako salbuespenari dagokionez, interesdunak organo eskudunak emandako elbarritasun ziurtagiria aurkeztu eta ibilgailuaren xedea justifikatu behar izango du zerga kobratzeaz arduratzen den udalean, honek dagokion ordenantza fiskalean ezartzen duen moduan.”(Guk azpimarratu dugu).

Hizpide dugun salbuespenari dagokionez, ahalmen hori baino ez die ematen 44/1989 Foru Arauak Arabako udalei. Argi dago ahalmen hori tresna bat baino ez dela, ordenantzetan ibilgailuaren xedea justifikatzeko moduaren inguruko zehaztasunak jasotzen baino ez baitie uzten udalei, baina inolaz ere ez ezin esan daiteke salbuespenaren aplikazio eremua mugatzeko eskumena ematen dienik, kasu honetan gertatzen den moduan.

Hori guztia ikusita ondorioztatzen da Iruña Okako Udalaren TMIZ arautzen duen ordenantzako 2.2 artikulua idazketak, 2005eko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31 arte indarrean egon dena, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauko 7. artikulua urratzen duela, eta baita TMIZ arautzen duen 44/1989 Foru Arauko 2. artikulua ere.

3. Konstituzioaren 9. artikuluko aginduaren arabera, botere publiko guztiak legezotasun printzipioaren menpe daude. Eta bereziki administrazioari dagokionez, 103. 1 CE artikulua honakoa dio: *“Administrazio Publikoak interes orokorrak objetibotasunez babesten ditu eta eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazio printzipioekin bat etorri eta Legeari eta Zuzenbideari erabat men eginez jarduten du.”*





Horrela, 2008 arte indarrean egon zen TMIZen ordenantza ezein pertsonak edo horretarako legezketasuna duen ezein erakundek errekurtsua aurkeztu ez izanak ez ditu aplikazio hartan eman diren jardun administratiboak babesten; kontrakoa baizik, jardun horiek, oraindik ere, legezketasun printzipioari erabat men egiten diote, hau da, ordenamendu juridikoko beste jardunekin bat etorri behar dute.

Udal horrek ibilgailua egokitu ez duten pertsona eskatzaileei salbuespena ezeztatzeko eman dituen jardun administratiboak ordenantzarekin bat datozenez, baina zergaren oinarritzko araudian ezarritakoa hausten dutenez, administrazioak berrikusi behar ditu.

4. Gauzak horrela, eta errekurtsua berrikusi aurreko prozedurak alde batera utzita -ez baitatoz harira- berrikuspen prozedura berezietara jo beharko dugu. Izan ere, prozedura horiek hasteko ez da nahitaezkoa interesdun batek errekurtsua jartzea, ofizioz hasi baitaiteke.

Zergak berrikusteko prozedura bereziak administrazioaren jardunak aldatzeko erabili ahal izango dira horretarako araudian jasota dauden taxututako egoera bereziak gertatzen direnean. Errekurtsua berrikusi aurreko prozedura, berriz, berrikusteko arrazoia ordenamendu juridikoak jasotzen duen edozein arau-hauste izan daiteke.

Oro har, baieztatu genezake berrikuspen prozedura bereziak egiten direnean, administrazioen jardunak aldatzea gomendatzen duten interes publikoko arrazoiak daudela.

Horrela, esku artean dugun kasuari dagokionez, ZFAOren 226. artikulua legezketasuna berrezartzeko bidea ematen du eta ezartzen zu zerga administrazioak bere jardunak atzera bota ahal izango dituela interesdunen onerako bada, honako hiru kasuetan:

- Ordenamendu juridikoa argi eta garbi hausten dutela irizten denean.
- Egoera juridiko zehatzean eragina duten eratorritako inguruabarrak emandako jarduna bidegabea denean.
- Prozedura izapidetzean interesdunek defendatzeko aukerarik izaten ez dutenean.

Gure ustez, kasu honetan lehenengo egoeraren aurrean gaude: Ordenamendu juridikoa argi eta garbi haustea.





Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

2/2009 GOMENDIOA, otsailaren 17koa, Iruña Okako Udalari egina.

TMIZeko Ordenantza Fiskala zuzenean aplikatzearen ondorioz emandako jardun administratiboak baliogabetzea; Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauko 7. artikulua eta TMIZ arautzen duen 44/1989 Arau Foruko 2. artikulua ezarritakoaren aurkakoak diren jardunak.

